

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 43/2024 Mozioa, apirilaren 15ekoa, Alavabus-en eta eskualdeko garraioaren zerbitzuak hobetzeko

Arabako Batzar Nagusi hauek Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Batzordeak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

43/2024 Mozioa, apirilaren 15ekoa, Alavabus-en eta eskualdeko garraioaren zerbitzuak hobetzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lizitatu beharreko foru-garraio publikoaren emakiden kontratuen agirietan baldintza tekniko egoki batzuk jaso ditzala, kalitate-estandarrak, erabiltzaileen erosotasuna eta irisgarritasuna hobetzen jarraitzeko balioko dutenak. Halaber, eskatzen diote ibilgailuen jasangarritasunaren balorazioa ere jaso dezala.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote markesinen inbentarioa eguneratuta eduki dezala, eta arreta berezia eman diezaiela foru-garraio publikoaren sistemak ematen dituen zerbitzuen informazio-euskarriari eta markesinen egoerari berari.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote hobetu dezala Alavabus-en eta eskualde-garraioaren zerbitzuen markesinetako informazioa. Horretarako, lurraldeko tokiko entitateekin lankidetzan arituko da, eta informazioaren teknologia berriak bultzatuko ditu, esaterako, eskualde-buruetan panel digitalak eta eguzki-panelak ezartzeko aukera. Helburua da foru-garraioko erabiltzaileei emandako zerbitzu publikoa eta informazioa etengabe hobetzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 15a

*Lehendakaria*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**